

Egunez egun diabetesarekin

Zikloa: 1.a, 2.a eta 3.a

Caia: Urtebetetzeak

IRAKASLEA

IKASLEAK

1/2



www.fundaciondiabetes.org

Ikastetxeetan ohikoa izaten da norbere urtebetetze-egunean ikaskideei gominolak eta bestelako gozokiak ematea.

Cozokiak banatzen ari den bitartean, urteak betetzen dituen haurra zoriontsu egoten da eta protagonista dela sentitzen du. Atsegina izaten da hori ikustea. Hala ere, nire ustez, berez positiboa den jarduera hori kutsatu egin da; sarritan, gatazkak sortzen ditu ikasleen artean eta heziketarako jarduera egokia izateari uzten dio.

Batzuetan, ikaskideen arteko lehiakortasuna sustatzen du eta ikasleen helburu nagusia aurreko ikaskideak ekarritako gozoki-kopurua edo haien kalitatea gainditzea izaten da. Hori dela eta, tutoreek (edo zenbaitetan klaustroak) zenbait arau ezarri behar izaten dituzte. Batzuk ikasleei ideia hori burutik kentzen saiatzen dira, klasera eraman daitekeen gozoki-kopurua mugatzen dute, edo gozokiak eramatea debekatzen dute.

Diabetesa duten haurrek beste arazo bat ere izaten dute: beren ikaskideek klasera eramaten dituzten produktuak gozoak izaten dira eta karbohidrato gehiegi izaten dituzte. Hori dela eta, haur horiek gutxiago jan edo intsulina gehiago injektatu behar izaten dute eta, horretarako, intsulina-kopuru hori kalkulatu behar izaten dute (kontuan izan behar dugu heziketa diabetologiko egokia jaso dutenez ere zail gertatzen dela kalkulu hori egitea).

Sarritan, horrek kalte egiten dio haurrari, bere ikaskideekiko dituen desberdintasunak azaleratzen dituelako eta ez dela ongi moldatzen sentitzen duelako.

Horrelako egoerak kudeatu ahal izateko, komenigarria litzateke zentroak berak zenbait irizpide ezartzea. Beraz, klaustroak jorratu beharko luke gai hori.

Egunez egun diabetesarekin

Zikloa: 1.a, 2.a eta 3.a

Caia: Urtebetetzeak

IRAKASLEA

IKASLEAK

2/2



www.fundaciondiabetes.org

Dena dela, zure ikasleen artean diabetesa duen haurren bat izanez gero, egokia litzateke urtebetetze-egunean klasera eraman daitezkeen produktuak zerrendatzea eta ikasle guztiek beti produktu berak eramatea.

Cai hori ikasturte hasieran gurasoekin egin ohi den bileran landu beharreko gaietako bat da.

Hartara, diabetesa duen haurrak aldeztu aurretik programa ditzake egun horietan hartu beharreko neurriak.

OHARRA

Bi testu gehitu ditugu ikasleekin gai hori landu ahal izateko.

- Lehen testuan, sor daitezkeen **lehiakortasunean** oinarrituz, urtebetetzeen gaia jorratzen da.
- Bigarrenean, diabetesa duen haurrarekiko **enpatia** landuko dugu.